



2016 -ko UDA: “Disfruta del Plazaola – Plazaola gozatu”

Plazaola Partzuergo Turistikoak 2016-ko udarako 17 bisita gidatu eta jarduera turistiko eskaintzen ditu bere zerbitzu turistikoetako hornitzaileen laguntzarekin.

Datorren asteburuan, uztailak 1, Plazaolako Partzuergotik gozatzeko eta udako oporraldietan ikasteko gomendatzen ditugun bisita gidatuen programa martxan jarriko da.

Uda honetarako, bisitatzen gaituzten guztientzako seguruenik atseginak eta haien nahiak asetzeko modukoak izango diren hainbat **bisita gidatu** prestatu eta aukeratu ditugu. Hauek “Disfruta del Plazaola – Plazaola gozatu” izenburuaren barruan joango dira eta mota guztietakoak baita gustu guztietakoak ere izango dira.

Gainera, herri eta udal ezberdinetan antolatutako ekitaldi eta ekintzen eskaintzak, gure inguruneaz, haren ondareaz, haren jendeaz eta kulturaz gozatzeko osagarri ezin hobea osatzen dute. Ongi etorriak!!

Jarraian, bisita bakoitzari buruzko xehetasunak azaltzen dizkizuegu.

PLAZAOLA ETA LEKUNBERRIKO ALDE ZAHARRA

Aintzinako trenaren geltokira bisita. Plazaola eta zonaldeari buruzko proiektzioa eta Natur Bidetik ibilaldia Lekunberriraino, herriko alde zaharraren historia eta bitxikeriak ezagutzeko.



- **Hasiera puntua:** Lekunberriko Plazaola geltokia
- **Datak:** Ostirala - Uztailak 8 eta 22, abuztuak 5 eta 19, irailak 2 eta 16.
- **Ordua:** 11:00-etan - Iraupena Ordu 1
- **Aldez aurreko erreserba.** Plazaolako Turismo Bulegoa (Lekunberri) T. 948 50 72 04 / oit.lekunberri@navarra.es / www.plazaola.org Gutxieneko pertsona kopurua: 10 pax
- **Prezioa / Pax:** 2€

LEITZAKO ALDE ZAHARRA




Leizako plazatik hasita alde zaharrera bisita, zonaldeko ohiko harri gris-urdinarekin egindako eraikinak ikusteko, baita herriko etxe tradizionalak, garbilekua, eliza, plaza eta Udaletxea.

- **Hasiera puntua :** Leizako plaza



- **Data:** Ostirala - Uztailak 15 eta 29, abuztuak 12 eta 26, irailak 9 eta 23.
- **Ordua:** 11:00-etan - Iraupena Ordu 1
- **Aldez aurreko erreserba.** Plazaolako Turismo Bulegoa (Lekunberri) T. 948 50 72 04 / oit.lekunberri@navarra.es / www.plazaola.org Gutxieneko pertsona kopurua: 10 pax.
- **Prezioa / Pax :** 2€

EZKURDI – APIKULTURA



Loreen, erleen eta erlezaintzaren artea eta zientzia. BISITALDI GIDATUAK ETA ZUZENeko SALMENTA. Nafarroako artisau eztiak, berezko uzta. Erlezaintzako museo etnografikoa.

- **Data:** Egunero aldez aurreko deituta: 12:00-etan eta 17:00-etan
- **Prezioa:** 6€ helduek eta 3€ haurrek
- **Lekua:** Eltso. Ultzama. T. 948 30 66 19 / 677 59 86 36 / 670 42 07 98 / m.ezkurdi@gmail.com

ORGIKO HARIZTIA

Orgira bisita, antzinean bailara hauetan bizi ziren hasierako biztanleen lekuko diren hariztiz osatutako baso zaharraren balio naturalaz eta paisaiatz gozatzeko.



- **Lekua:** Lizaso. T. 948305300 / 620955454 / garrapo@garrapo.com - www.bosque-orgi.com
- **Hasiera puntua:** Orgiko hariztiko aparkalekua
- **Aldez aurreko erreserba.** Gutxieneko pertsona kopurua: 10 pax
- **Prezioa / Pax:** 3€

MENDUKILO KOBAK



Zatoz lurrazpiko erreinura! Aralarko erraiak zain dituzu. Familia osoarentzat egokitutako bisita gidatuak.

- **Iraupena:** Ordu bat eta erdi. Gutxieneko pertsona kopurua: 5 pertsona. Gomendagarria aldez aurreko erreserba.
- **Prezioa:** 8€ helduek, 6€ haurrek / >65 urte/taldeek
- **Lekua:** Astitz. Larraun. T. 948396095 / mendukilo@mendukilo.com / www.mendukilo.com



"ANTSONEA" GAZTANDEGIA



Salmenta zuzena eta gaztandegira bisita gidatua (aldez aurretik erreserbatuz), artzai txakurraren erakustaldia, artzaintza mundua, Idiazabal marka eta Artzai gaztaren sekretuak ezagutzeko aukera, Antsonea gaztaren dastaketa eta ardo kopa batekin lagundutako pintxoak jateko aukera.

- **Ordutegia:** Ostegunetan, Ostiraletan eta Larunbatetan. Iraupena: 1h 30´
- **Prezioa:** 4€
- **Lekua:** Uztegi.
- **ERRESERBAK:** T. 620 301 654 / 948 513 468 / antsoneagaztak@gmail.com / www.antsonea.com

"BIKAIN" GAZTANDEGIA



Geure gaztandegia ikusteko aukera doan eskeintzen dugu. Jaki guztiak betidaniko era erabiliz egiten ditugu, baserri ondoan ikusiko dituzun ardi latxa horien esneaz, gure zaharren ohiturak jarraitzen ditugularik.

- **Data:** Egunero aldez aurreko erreserbarekin
- **Prezioa:** Dohainik, Iraupena: Ordu 1
- **Lekua :** Etxarri-Larraun.
- **ERRESERBAK:** T. 948504117 / 608875729 quesosbikain@gmail.com / www.quesosbikain.net

ANATXONEA GAZTAK



"Artzai Gazta" delako Idiazabal markaren izena daraman gazta naturalaren ekoizpen-prozesua ezagutzeko aukera.

- **ERRESERBAK:** T. 948 50 41 45 - Aldez aurreko erreserbarekin
- **Iraupena:** 20-30´
- **Prezioa:** Dohainik
- **Lekua :** Baraibar

PERU-HARRI, HARRIAREN PARKE ETA MUSEOA



Iñaki Perurena harri-jasotzaileak diseinatutako Peru-Harri museora bisita. Ondoren, herri-kirolen historia eta Iñaki eta honen seme Inaxioren markak ezagutzeko bisita baserrira.

- **Aldez aurreko erreserba.** T. 659701045 / peruharri@hotmail.com
- **Gutxienerako pertsona kopurua:** 15 pax

(Erreserben arabera taldeak egingo dira) Iraupena: 2 ordu

- **Prezioa:** 4€ helduek eta 3€ haurrek
- **Lekua:** Leitza, Erasote auzoa.

SARALEGIREN ARRO BASERRIA



Leitzako Arro baserrian hazten den azienda ikuskatzeko bisitaldia: behorrak, astoak, antzarak, ahateak, txerriak, ardiak...Ondoren, talogintza tailerra eta horien dastatzea.

Aldez aurreko erreserba. T. 610378543 / krisaralegi@gmail.com

Iraupena: 1h eta 30'

Prezioa: Kontsultatu

Lekua: Leitza, Arkiskil Auzoa.

BEIGORRI ABENTURA PARKEA



Familia, gazte eta helduei zuzenduta dagoen zuhaitzen adarretatik ibiltzeko alternatiba abenturazalea. Jarri itzazu gozatzeko gogoak eta gainerakoa zure irudimenaren esku utzi.

- **Aukerak:**
 - Ibilbide motza: 10€ - 4,5m-ko altuera, 130m-ko luzera (45')
 - Ibilbide luzea: 20€ - 9m-ko altuera, 250m-ko luzera (1h 30')
- **Ordutegia:** 11:00-etatik 19:00-etara (eguerdian itxita)

- **ERRESERBAK:** T. 609 044 071 / bei_gorri@hotmail.com / www.beigorriaventura.com
- **Lekua :** Lekunberri.
- **Prezioa:** Kontsultatu



MIRUA, NATUR JARDUERAK



- **Prezioa:** Kontsultatu
- **Lekua:** Lakuntza

Miruak erritmo lasaiean egiteko hainbat ibilbide eskaintzen ditu behatzeko, entzuteko, txoko bereziak aurkitzeko eta naturaz 5 zentzumenekin gozatzeko, geldialdi tematikoak eginez. Ibilbideak eta bisita gidatuak Aralarretik, Urbasatik, Andiatik, Pirinioetatik... Naturalki. Pausoz-pauso.

- **Aldez aurreko erreserba :** T. 608 56 03 69 / www.mirua.com / info@mirua.com

SAN MIGELEKO SANTUTEGIA



1000 urte baino gehiagoko historia duen santutegira bisita, bere barnealdean dagoen europar esmalteriko obra garrantzitsuenetariko bat den erromaniko garaiko erretabla ikusteko eta gailurretik ikusten diren bistetaz gozatzeko.

- **Ordutegia:** 10:00-14:00 eta 16:00-20:00
- **ERRESERBAK:** Aldez aurreko erreserba - 948 37 30 13 / 626 03 02 34 www.aralarkosanmigel.info

miguelexcelsis@gmail.com. Gutxieneko pertsona kopurua: 10 pax.

- **Prezioa / Pax:** 1€
- **Lekua:** Uharte Arakil.

LACTURALE – ESNE BEHIEN INTERPRETAZIO GUNEA



Granjan barrena bisita gidatua esne behien bizitza eta haien bizi-prozesua erakusteko, txekorra jaiotzen denetik esnea ematen hasten den arte eta bere ekoizpena, elikadura, ongarrien kudeaketa, jezte sistema, esnearen biltegiatzea eta abar ezagutzeko. Ekoizpen integratuko sistemaren onurak ezagutzeko aukera ere izango da.

- **Ordutegia:** Asteburuero aldez aurreko

erreserbarekin. Iraupena: 1h-1:30h



- **Prezioa:** 2€ / <5 urtekoek dohain
- **ERRESERBAK:** T. 948 60 04 49 / visitas@lacturale.com / www.lacteosbelate.com
- **Lekua:** Etxeberri (Arakil)

LESAKENEA - OREINAK



Askatasunean dauden oreinetako ustiapenera bisita. Oreinaren bizitza eta erabilera forma ezagutu ahal izango duzu, baita sarean zehar oreinei jaten emateko aukera ere.

- **Iraupena:** 30´ - 1h
- **Prezioa:** 3€ pax.
- **Lekua:** Leitza.

- **ERRESERBAK:** Aldez aurreko erreserba. T. 619 21 84 02 / 606 24 96 39 / lesakenea@hotmail.com / www.lesakenea.com. Gutxieneko pertsona kopurua: 5 pertsona

ARALAR ZALDITEGIA



Aralar mendian eta Larraun bailaran zehar zaldiz irteerak, edozein pertsonetarako egokituak (>10 urte), etxean hazi eta hezitako zaldiekin.

- **Prezioa:** 25€
- **Iraupena:** 1h 30´
- **ERRESERBAK:** T. 948 50 42 14 / jlabarazaldi@gmail.com
- **Lekua:** Baraibar.

KANTINA PLAZAOLA



Bizikleten alokairua natur bidea egiteko (aukerakoa garraio zerbitzua). Bestelako zerbitzuak: dutxa, presiozko garbiketa, kafetegia, jolas-tokia...

Ordutegia: 10:00-etatik aurrera zabalik
Prezioak: Kontsultatu
Lekua : Lekunberri

ERRESERBAK: Aldez aurreko erreserbak (nahitaezkoa) T. 699 38 32 87 / kantinaplazaola@gmail.com



Gainera, egonaldia betea eta oso gogobetekoa izan dadin, **ostalaritza** zerbitzuen (jattetxeak, sagardotegiak, tabernak,...), **ostatu zerbitzuen** (hotelak, landetxeak, agroturismoak, hostalak, etb.), baita **artisansu produktuak** egiten dituztenen (zapatak, urregintza, forjatze-lanak, pateak, hestekiak, zur-lanak, belarritakoak, etb.) eta **bestelako zerbitzuen eskaintzak** (taxi, aholkua, etb..) beren aldetik ahalik eta zerbitzu onena ematen saiatuko dira.

Eskaintza honi buruzko informazio gehiago, Plazaola Partzuergo Turistikoaren web orrian:

- www.plazaola.org
- Teléfono: 948 507 205
- plazaola@plazaola.org



Hainbat ekitaldietako programa.

Uda honetarako ekitaldien programa festa eta zenbait jardueretan zabala da, baina, gainera, Plazaola Partzuergo Turistikoak, Arakil, Areso, Imotz, Larraun, Leitza eta Lekunberriko Udalen laguntzarekin bisitariarentzako erreferentzia diren ekitaldi batzuetan antolatzen eta/edo laguntzen du. Horrela, uztaila eta iraila artean ospatuko direnen artean, garrantzizkoenak hauek dira:

- **Imotzko xenden eguna:** Imotzko herri guztiak elkartzen dituen xendetatik ibilbidea. Paseoak, musika, aperitiboa... Aurten Muskitz-en ospatuko da uztailaren 31-an.
- **Lekunberriko Antzinako azoka:** Artisansu merkatua, dantzak, musika, txontxongiloak, malabareak, etb. izaten diren festa tradizionala. Abuztuaren 7an izango da.
- **Europako Orientazio txapelketa:** Abuztuaren 27an eta 28an Aralarren.
- **Aresoko Mendi Martxa:** Areson hasi eta bukatzen den mendi martxaren 8. edizioa.
- **Plazaolako bide berdearen maratoi erdia eta maratokia:** Maratoi erdiaren X. edizioa eta maratoiaren I. edizioa, biak Andoainen bukaera dutelarik. Irailak 11. Irteerak Leitza eta Lekunberri.
- **Leitzako Talo Eguna:** Artisansuak, talogileak, musika, umeentzako jarduerak, etb... Leitza ospatuko da irailaren 18an.
- **Arakil-Irurtzun-go Bertoko Abere Azoka:** Abere eta artisautza azoka Irurtzunen (Irailak 18)



- **Lekunberriko Sagardo Eguna:** Sagar mota ezberdinen erakusketa, “kirikoketa”-ren erakustaldia eta sagardoaren dastatzea. Irailak 24